

CAEren eskaera 2019ko Europako Parlamentuko hauteskundeetarako

2018ko azaroaren 26a

2019ko maiatzean Europako hauteskundeak egingo dira Europar Batasunarentzat une erabakigarria izango den horretan. Atzeraldi gogor baten eta finkapen fiskalaren ostean, handitzen ari den ezberdintasun sozialak eta ekonomikoak hazten ari den desengainu politikoa eta jarrerak euroeszeptikoak ekarri ditu. Testuinguru honetan, kultura ezin da polarizatu, elkartasun iturri gisa ikusi daiteke eta elkar ulertzeko eta kooperaziorako erabili behar da.

Aurrera egiteko eta Europako aniztasunak indartsuago egiten gaituela aldarrikatzeko garaia da. **Culture Action Europe-k indar politiko guztiei eskatzen die kultura-kontuei konstruktiboki eta errespetuarekin heltzeko Europar hauteskundeetan**, izan ere, bere dimentsio kulturalaren aitorten espliziturik gabe oso zaila da Europar Batasunaren etorkizuna esfortzu bateratu bat bezala imajinatzea.

Culture Action Europe-k 2019ko Europako hauteskundeak Europako balore zentralen eta demokraziaren aldarrikapentzat ikusten ditu, biak mehatxupearan dauden garai honetan. Mundu erronka berriekin batera adierazpen kulturalen eta artistikoen askatasunean presioa hazi egin dela ikusi dugu, trantsizio digitala eta klima aldaketa txertatuz. Horrek guztiak Europa mailan kultura-politika adierazleak eta asmo handikoak eskatzen ditu Europa indartsu baten oinarritzko zatitzat, kultura-sektorea babestu eta defendatuko duena.

Europako alderdi politikoentzat une kritikoa da Europako oinarrien aurka egiten dutenei aurre egiteko. Elkarbanatutako ahalegin horretan, Culture Action Europe-k **aurka egingo die ahots euroeszeptikoei, eta batasunerako, berdintasunerako eta kooperazio inklusiborako beharrezko indar gisa kulturak Europari egindako ekarpena aitortzen duten ekimen politiken alde egingo du.**

Hori dela eta, Culture Action Europe-k Europako hauteskundeetako parte-hartzaile guztiei eskatzen die:

1. **Beraien programetan kulturak Europar Batasunaren aurrerapenean duen oinarritzko papera onartzeko**, Europar Batasuneko kultura-politikarako beraien estrategiaren definizio argia txertatuta;
2. **Balore europarrak babesteko konpromisoa hartzeko**, batez ere, adierazpen artistikoaren eta kulturalaren askatasuna eta kultura-eskubideak, gorrotoaren aurka elkarrizketa defendatzea eta kultura-aniztasuna harro defendatzea Europako gizartearen oinarritzko osagaitzat;
3. **Kultura-kontzientzia duten hautagaiak proposatzeko**. Hautagaiak gai izan behar dira politikak ebaluatzeko ikuspegi anitzekin, faktore sozialak, ekonomikoak eta kulturalak txertatuz;
4. **Europar Batasuneko aurrekontuko gutxienez %1 kulturen erabiltzeko edota Creative Europa programako kulturarentzako finantza-esleipena bikoizteko** inpaktua eta eskuragarritasuna berma daitezen;
5. **Kultura-balorearen sorreratzat kultura eta sorkuntza praktikak aitortzeko**, eragin soziala eta ekonomikoa inspiratzen baitu horrek, eta, hortaz, hasieran inbertsio publikoa merezi du;
6. **Esperimentazio eta ikerketa artistikoa onartzeko**, funtsezkoak baitira ezagutza berriak eta pentsamendu kritikoa sortzeko; azaleratzen ari diren gizarte, ingurumen eta teknologia arloko erronketan ikuspuntu berriak garatuz eta kultura garaikidearen produkzioan ere bai, kultura digitalak barne
7. **Maila askotako koordinazioa ahalbidetzeko** kultura-sektorearen eta beste eremu batzuetako, Europako erakundeetako, Estatu Kideetako eta, era berean, herri eta eskualdeetako agintarien eta nazioarteko erakundeetako beharrezko aktoreen artean;
8. Aldi baterako langileen aldeko **lan-praktika justuen eta ongizate sistemen garapena sustatzeko**, ohikoa dena kultura-sektorean eta gero eta zabalagoa den ekonomian;
9. **Kultura-langileen mugikortasunerako eta kultura-lanen zirkulaziorako beharrezko baliabideak erabiltzeko** sektore guztietan nahiz Europan nahiz Europatik at; EBko izatearen balio erantsi ukaezina emanez eta beraien ekarpena azpimarratuz ulertze kultural elkarbanaturako, garapen merkaturako, berrikuntzarako eta kultura-praktika jasangarrientzako.

cultureeurope
we want is

democratic
diverse
fair
free
human
inclusive
vital

10. **Kulturaren eta kultura-ondarearen digitalizazio justua eta etikoa errazteko**, kontuan izanik aniztasuna eta inklusioa eta paisaia digitala sustatuz, non irabazi asmoak dituzten ekimenak, irabazi asmorik gabekoak, publikoak eta komunitatean oinarritutakoak elkarrekin existitu daitezkeen.

go vote!

#EUElections2019

#thistimeimvoting

#actforculture